

Nor nori (1+1=1)



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Lehengoan nioen landareak badirela nor. Nortasun hori berezkoa da batzuetan eta emana beste batzuetan. Berezkoa, landare jende berak garatu du denboran zehar. Eman, jeneralean kulturala dute, gure kulturak emandakoa. Tokian tokiko kulturak. Kultura horixe baita, lurra lantzea. Itxuraz, kultura hitza latinezko *colere*-tik dator, eta, agidanean, hori *kwel* indoeuroparretik, zeinak esan nahi omen du nahastu, irauli, itxulastu, aldatu, berritu... Hitz horiek denek lurrera naramate.

Txertatzea da kultura. Landare bati beste bat txertatuz berri bat sortu, bi landarez osatutako landare bat. Guk egiten dugu hori. Lurretik sortua dugun kultura, jakintza, landareei bueltan emana. Txertatzean mentu-oinari edo txertakari mentua edo txertoa jartzen zaio. Zein zeini, orde! Hobeto esanda, nor nori? Sasoia denez, hona zerrendatxo bat.


Espezie berekoetan bakarrik txerta daitezke, besteak beste: sagarrondoa (*Malus x domestica*), olibondoa (*Olea europaea*), pikondoa (*Ficus carica*), hurritza (*Corylus avellana*), intxaurrendoa

(*Juglans regia*), mahatsondoa (*Vitis vinifera*), mingranondoa (*Punica granatum*), gereziondoa (*Prunus cerasus* var *cerasus*), gingondoa (*Prunus cerasus* var *avium*), pistatxondoa (*Pistacia vera*), gaztainondoa (*Castanea sativa*), ahukateondoa (*Persea americana*) eta kationdoa (*Diospyros kaki*).

Aldiz, zitrikoa beste edozein zitrikori txertatu: mandarinondoa (*Citrus reticulata*, *Citrus x tangerina*, *Citrus unshiu*...), laranjondoa (*Citrus x sinensis*), limoiondoa (*Citrus x limon*), arabisagarrondoa (*Citrus maxima*, *Citrus x paradisi*) eta abar.

Hezurra duten hauek ere elkarrekin txertatzen ditugu: elorri beltza (*Prunus spinosa*), mertxikondoa eta nektari-nondoa (*Prunus persica*), abrikotondoa (*Prunus armeniaca*), aranondoa (*Prunus domestica* eta abar) eta paraguaiondoa (*Prunus persica* var *platycarpa*).

Udareondoa (*Pyrus communis*) eta irasagarrondoa (*Cydonia oblonga*) elkarri txerta daitezke, baita elorri zurari ere (*Crataegus monogyna*). Azken horrek ederki hartzen du mizpira ere (*Mespilus germanica*). ■



Ahuakateondoaren txertoa.

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Pagadi gazte bat daukat eta esan didate komeni izaten dela, landarea gaztea dela, mutur bat utzi eta beste muturrak moztea. Zer iruditzen zaizu? Eta zein ilargirekin moztu behar nituzke mutur horiek? Mila esker eta ongi izan.

Kepa Martinez (Alegia)

Kaixo Kepa. Pagoak zuzenak izateko garrantzitsua da muturreko kimua izatea nagusia. Horrek bi baldintza eskatzen ditu: goranzko puja bakarria izatea eta horrek nahikoa elikagai izatea inda-



rrean hazteko. Lehenengorako zuzen gorantz soilik adar bat uztea komeni da eta parekorik balu –gorantz hura ere– hura moztu. Beste adarrak, bigarren mailakoak, enborraren bueltan datozenak, zabalera bai baina gorantz jotzen ez dutenak, garrantzitsuak dira landareak janari asko sor dezan. Horregatik horiei eustea komeni da. Urtero-urtero zuhaitza luzatu ahala, horietako adar bat edo bi kendu daitezke. Pixkanaka azpitik soilduko duzu, baina kolpetik adarrik eta janaria sortzen duten hostorik kendu gabe.

Lan hori apiril aldera egingo nuke nik, izerdia hazia duenean eta ilbeheran.